

ELGERA



BERBETAN: Deustomateak **KRONIKA:** La Sallekoak, Gasteiztik.
ERREPORTAJEA: Martinika, ametsetako bidaia.

AURKIBIDEA

- 4** Kronika, *Euskara bidaia Turinera*
- 6** Berbetan, *Deustomateak Podcasta*
- 8** Erreportajea, *Erdi aroko magia*
- 10** Artikulua, *Googaz lehiaketa*
- 11** Inkesta, *Liburuak euskaraz.*
- 12** Artikulua, *Aitabitxi-amabitxi proiektua*
- 14** Erreportajea, *Martinika*
- 18** Denborapasak
- 20** Artikulua, *Gizarteratze zikloko ikasleak*
- 22** Kronika, *La Sallekoak Gasteizetik*
- 24** Kronika, *Agate Deuna*






ELGERA

Argitaratzailea: Elgera Lantaldea

Deustuko Ikastola IPI, Ellacuria-Zurbaran BHI, Harrobia Ikastola LHII, Ibarrekolanda BHI, La Salle Bilbao HLBIP, Errekaldeberri BHI, San Andrian BHI, San Inazio BHI, Txurdinaga LHII, Unamuno BHI, Berbaizu Euskara Elkarte eta PREST! aldizkaria.

Imprimategia: Antza · **Ale kopurua:** 2500 · **Webgunea:** <https://uriola.eus/prentsa/elgera/>

Euskara Bidaia



Unamuno BHIko ikasle talde bat Turinera joan ginen 2024ko otsailaren 13tik 20ra. Zertarako? Bidaia hau aukera paregabea izan da hango hizkuntza eta kultura gutxituen inguruan ikasteko eta, aldi berean, gure artean euskaraz mintzatzeko! Italiako iparraldeko errealitatea, ohiturak eta kultura gertutik ezagutzeko esperientzia aberasgarria izan da guretzat. Astebeteko trukea egin dugu Spinelli lizeoko ikasleekin, eta ez dugu esperientzia berehalakoan ahaztuko.


Ostegunean, goizean goiz, maletak hartu eta 7:00etan hartu genuen hegazkina. München eskala egin ondoren, Turinera ailegatu ginen, eta Albertorekin elkartu ginen aireportuan, ikurriña bat zeramala. Tren bat hartuta, gure italiar lagunekin elkartu ginen, A. Spinelli institutuan eta gaztelaniako C1 klase batean egon ginen, Turineko kulturari buruz hitz egiten. Hiriari eta eskualdeari buruzko gauza interesgarri batzuk ikasi genituen, esaterako, FIAT enpresa bertakoa dela, Italiako txokolatearen hiriburua dela...

Lehenengo arratsalde horretan, gure turindar bikotekideen etxeetan egon ginen, eta hango familiak ezagutu genituen. Bigarren egunean, ostiralean, institutuan bisita gidatu bat egin genuen, eta bi taldetan banatu gintuzten zenbait klasetan parte hartzeko. Klaseak ezberdinak iruditu zitzaizkigun, baina oso interesgarria izan da bestelako hezkuntza-sistema batek nola funtzionatzen duen ikustea. Gainera, San

Valentin eguna zenez, erabat apainduta zegoen institutua eta gutunak bidaltzeko ohitura zutela azaldu ziguten. Geletatik atera ondoren, bideokonferentzia bat izan genuen hizkuntzalari batekin. Aosta bailarako frankoprobentzalari buruz hitz egin zigun; Italiako ipar-mendebaldeko, Suitzako eta Frantziako hizkuntza gutxitu bat da frankoprobentzala. Oso interesgarria izan zen azalpena, baina zapore gazi-gozoarekin bukatu genuen, zaila izango baitute hizkuntzari eustea.

Asteburua familetan egin genuen. Batzuk inguruetako leku turistikoetara joan ginen, beste batzuek familetan jatekoak prestatu zituzten... Igande gauean berriro ere elkartu ginen batera afari bat egiteko. Inguruko jatetxe batean pizza oso goxoak afaltzeko aukera eduki genuen.

Asteazken zehar, Turineko kultura aberatsa eta historia paregabea ezagutzeko aukera izan genuen (haiek behin eta berriz zioten





bezala), eta Turineko museo nagusiak bisitatu genituen. Astelehenean, Palazzo Reale-an egon ginen. Turin saboiarren hiriburua izan zen urte luzez, eta Palazzo itzela da, historiaz eta artez betetako eraikina. Gela handi batean piano bat ikusi genuen, eta Marak pieza bat jo zuen; oso une berezia izan zen. Asteartean, Egiptziar museoa bisitatu genuen, egiptori buruzko munduko bigarren museorik handiena, eta asteazkenean Zinemaren Museoa. Azken museo hori Mole Antonelliana-n dago, hiriko ikur bihurtu den eraikinean, hain zuzen.

Italiarren kultura gure antzekoa izan arren, zenbait gauza benetan interesgarriak iruditu zaizkigu. Jateko ohiturak nahiko antzekoak dira, baina pasta eta pizza aipatzekoak dira. Gutako batzuek etxeetan egin genituen familiekin. Turin Bilbo baino handiagoa da, eta gure italiar lagunek garraioa gehiagotan erabiltzen dute guk baino, baina, hala ere, oinez ibiltzeko moduko hiria iruditu zaigu.

Azkenean, osteguna berriz iritsi zenengan, penaz bada ere, maletak egin eta A. Spinellira joan ginen azken aldiz. Bokata bat hartu eta gero, aireporturako bidea hartu eta Bilbora bueltatu ginen.

Esperientzia ahaztezina izan da, barrez, emozioz eta abenturaz betea. Euskaraz hitz egiteko eta beste kultura batzuk ezagutzeko aukera paregabea izan dugu,

eta dudarik gabe, errepikatzeko moduko bidaia izan da! Italiarrak hona datozenean, euskarari eta euskal kulturari buruz hitz egingo diegu; hizkuntza biziberritzeko egindako bidea azalduko diegu, eta hizkuntza gutxitu bati eustea posible dela ikusiko dute!



“Proiektuak ditugun lotsak alde batera uztera bultzatzen gaitu”

Hezkuntza Sailak Ikaslab izeneko proiektua jarri zuen abian 2022-2023 ikasturtean, eta ikertzeko, sortzeko, komunikatzeko edo hausnartzeko gonbita egiten duen espazioa da. Aurtengo urtarrean Deustuko Ikastolan jarri dute martxan, eta bertan podcast tailerrari ekin diote. DBH 1. mailako 8 ikaslek hartzen dute parte eta honen inguruko xehetasunak eskaini dituzte.

1. Zergatik erabaki zenuten podcastaren tailerrean apuntatzea?

Esperientzia oso ona izango zela uste genuen eta probatzearen apuntatu ginen. Taldeko askok podcastak entzuten ditugu eta proiektua oso interesgarria iruditzen zitzaigun. Gainera, gure taldean jende berriak dago eta asko hitz egitea gustatzen zaientzat oso erakargarria da proiektua.

2. Nondik dator Deustomateak izena?

Deustun bizi garenez, tomate hitza beti dago ingurukoaren ahoan eta ikurra da gure herrian. Hortaz, argi genuen tomateari erreferentzia egiten dion izen bat nahi genuela. Hasieran, izen asko bururatu zitzaizkigun: tomate saltsa, tomate mistoa, entsalada mistoa, tomateroak... Azkenean Deustomateak aproposena iruditu zitzaigun.

3. Nola grabatzen dituzue zuen irratiratsaioak?

Nahiko modu berezian txandakatzen gara. Grabaketa gelan 3 pertsona aulkietan jarri eta gainontzekoak lurrean esertzen dira. Gure poskasta entzuten baduzue musika jartzen dugu eta tarte horretan lekuz aldatzen joaten gara. Hala ere, gehienetan baten bat falta denez, ez gara beti txandakatzen ibili behar.



4. Zein da podcastaren helburua? Zer lortu nahi duzue?

Batez ere, bi gauza lortu nahi ditugu: gure podcastaren bidez euskara sustatzea eta bai guk, bai gure entzuleek ondo pasatzea. Horrez gain, jendeak gaur egun gertatzen diren gauzak ezagutzea bilatzen dugu; adibidez, eskolan gertatzen diren ekintzen berri ematen dugu. Dena dela, helburua disfrutatzea da.

5. Zein da Deustomateak-en egitura?

Zazpi atal inguru ditugu, baina batzuetan ez ditugu guztiak irratiaio bakar batean sartzen. Gehienetan astean ikasitakoaren inguruan hitz egiten dugu. Telefono txantxak ere egiten ditugu eta, horrez gain, beste atal batzuk ditugu: kultur gomendioak, elkarrizketa, txisteak txismeak...

6. Orain arteko ataletan zein eduki landu duzue?

Hirugarren atalean inauterien inguruan hitz egin genuen eta eskolan egindako ekintzak ezagutzera eman genituen. Martxoan Deustuko Jaiak izan direnez, horien inguruan ere aritu gara. Jai batzordeko Maialen eta Joane gonbidatu genituen elkarrizketa bat egiteko eta jaiak antolatzekeo prozesua nolakoa den kontatu ziguten.

7. Zein da gehien gustatzen zaizuen atala?

Bakoitzak bere iritzia du honetan. Batzuen gogokoena txisteen atala da: jendeak posta bitartez bidaltzen dizkigu eta guk irratiratsaioa ekartzen ditugu. Txismeak edo saltsa-saltseroa atala ere oso gustukoa dugu, atalei emozio apur bat ematen dielako eta saltseoa





asko gustatzen zaigulako. Txantxa telefonikoak egitea ere dibertigarria da, baina egiten ditugun atal guztiak oso ondo daude eta asko disfrutatzen ditugu.

8. Nola da irрати saio bat prestatzeko prozesua?

Irratsaioa ostegunetan egiten dugu eta irakasleak aste hasieran eskaleta bat bidaltzen digu gai posibleekin. Guk horiek landu eta prestatu behar ditugu. Aitortu behar dugu askotan ahaztu egiten zaigula, eta tailerraren lehenengo tartea erabiltzen dugula dena prestatzeko. Ondoren, entsaiatu gabe hasten dugu grabaketa; beraz, esan dezakegu gehiena inprobisatu egiten dugula eta ez gara batere baldarrak.

9. Nola sentitzen zarete mikrofono aurrean hitz egitean? Hasieran lotsa ematen dizue?

Hasieran lotsatuta sentitzen gara eta urduri hitz egiten dugu, ez dakigulako ondo zer esan; hori izan daiteke zailtasun handiena. Gainera, zerbait berria denez, arraroa egiten zaigu kaskoetan gure ahotsa entzutea eta jakitea ikastola guztiak entzun gaitzakeela. Gerora, behin gaiari eutsita, gutxinaka lasaitu egiten gara eta lagunarteko elkarrizketa bat izango bagenu bezala hitz egiten

dugu. Proiektuak ditugun lotsak alde batera uztera bultzatzen gaitu.

10. Zer irakasten dizue podcastean aritzea?

Pertsona lotsatia bazara, erraztasun gehiagorekin hitz egitera lagun zaitzake eta gehiago zabaltzera. Gainera, hasieran erdipurdi aritu arren, praktikarekin hobetzen goaz. Ez da beldurrik izan behar gauza berriak probatzeko, eta zerbait gaizki esaten badugu, ez da ezer gertatzen; guztiak erratzen gara noizbait. Azken finean ikasteko gaude hemen eta akatsetatik asko ikasten da.

11. Nola baloratzen duzue esperientzia?

Oso dibertigarria. Mundu guztiak probatuko beharko lukeen esperientzia dela uste dugu, bai hitz egitea gustatzen zaienek, bai gehiago kostatzen zaien horiek, trebetasuna praktikatzeko. Lotsak kentzeko aukera paregabea da, jendeak entzuteko hitz egiten duzu, baina euren aurrean egon gabe.



Erdi aroko magia, San Inazion.

Pasa den otsailean, Erdi Aroko azoka aurkeztu genuen San Inazio BHIko 2. DBHko ikasleok. Bi aste egon ginen lanean eta berdegunean egin genuen azoka. Otsailaren 14an C eta Dkook egin genuen eta otsailaren 17an A eta Bkoen txanda izan zen. Guraso asko etorri ziren, baita Intxixuko ikasleak ere. Giro aparta egon zen. Betiko moduan, 8:45ean klasera igo ginen. Azken ukituak eman genituen eta denbora gutxira, mahaiak, aulkiak eta bestelako materialak jaitsi genituen. Ondoren, dena prestatu genuen, apainketa guztiak jarri, eta txoko bakoitza prestatu genuen. Gonbidatuak ez zirenez 12:00ak arte helduko, argazkiak egin genituen; ondoren, egin genuen ekitaldiaren azken entsegua eta, hasi aurretik, atsedeen txiki bat hartu genuen. Komunikazio taldeko kideak harrera egitera joan ziren, eta momentu horretan hasi zen urduritasuna. Ordua hurbiltzen ari zen, gurasoak eta Intxixu Ikastolako umeak etortzen ari ziren eta oso urduri geunden, asteetan egindako lana erakusteko asmoz.

Lehenik, denak erromesen txokora joan behar ziren, haiek azalduko zieten gonbidatuei zer egin ahal zuten. Behin azalpena bukatuta, umeak talde txikietan txoko ezberdinetara joan ziren, eta talde bakoitzeko ekintza bukatuta erromesen txokora joan behar ziren zigiluaren bila.

Adibidez, ehungileen txokoan, tapiz txikiak egin zituzten; botikarien txokoan esperimendu txiki bat; eta sukaldarien txokoan, ogi oreka egin zuten.

Oso ondo pasatu genuen arren, arazo txikiak ere egon ziren. Adibidez, sukaldarien txokoan, arazotxo bat izan zuten, izan ere,



umeei gehien gustatu zitzairen txokoa izan zen eta irina gabe geratu ziren. Irakasle bat joan zen irina gehiagoren bila, baina heldu zenerako jadanik bukatu zen txokoen atala eta inprobisatu behar izan zuten.

Ordu bat edo eman genuen txokoka umeei azaltzen eta ekintzak egiten, momentu batzuetan estres apur bat ere sentitu genuen, beste batzuetan oso pozik egon ginen eta batzuetan gustatzen ari zitzairen edo ondo egiten ari ote ginen zalantza izan genuen. Ondoren, esan ziguten dena oso ondo atera zela eta oso ondo lan egin genuela.

Azokako lehenengo atala bukatzean, hau da, txokoak eta ekintzak, baladaren errezitaldia genuen, Euskara ikasgaian antolatua. Berdegunean bertan egin genuen, denak borobil erdi batean jarri ginen eta atzetik musika jarrita abestu genuen. Hori bukatuta, A eta B geletako



ikasleak etorri ziren ekitaldia egiteko, akrosport dantzak, OFEn antolatuak, eta antzerkiak, antzerki tailerrean antolatuak. Azokako hiru atalak bukatuta zeuden, beraz geratzen zen bakarra dena batzea zen. Mahaiak, aulkiak, jarri genuen apainketa guztia... Pila bat denbora eman genuen batzen eta azokaren adrenalinaren ostean atalik txarrena izan zen, baina beharrezkoena ere.

Gure ustez urtero egiteko ekintza bat da, oso ondo pasatu genuen eta asko ikasi genuen prozesu osoan zehar. Izan ere, aurreko asteetan lan handia egin genuen hainbat ikasgaitan eta Erdi Aroko lanbideei eta hainbat kontuei buruz ikasi genuen. Berriz egiten bada, hurrengo urteetako ikasleek ere bizi ahal izango dute.

**San Inazio BHI-ko
DBH2ko ikasleak.**



Gamifikazioa genero berdintasunaren mesedeetan.

Harrobia ikastolak garatutako Borroka isila bideo-jokoa Googaz lehiaketara aurkeztu eta irabazi egin du. Errealitate birtualeko simulazio baten bitartez, jokalaria bere azalean pairatuko ditu Maribel emakumeak egun arrunt batean jasaten dituen bereizkeriak, mespretxuak eta presioak.

Bistan da Genero-berdintasuna gai zaila eta konplexua dela; hori dela eta, lehen aldiz proiektua proposatu zigutenean, gure taldeak ez zuen jakin nola hurbildu kariari modu interaktibo eta esanguratsu batean. Harrobia Ikastolako 3. mailako ikasleak ginen, eta Googaz izeneko lehiaketa baterako joko-proiektu bat sortzeko erronka genuen aurrean. Lehiaketaren gaia argia zen: genero-berdintasuna landu behar genuen, eta gure proposamena VR betaurrekoekin jolasteko esperientzia gamifikatu bat sortzea izan zen.

Hasi ginenean, ideia nagusi bat izan genuen buruan: jendeak errealitate birtualaren bidez esperientzia interaktibo bat izatea, non emakume batek egunero jasaten dituen oztopo eta presioei aurre egin beharko dien. Gure helburua ez zen soilik jolas bat egitea, baizik eta gizartean benetako hausnarketa eragitea. Horrela jaio zen Borroka Isila. Jokoa lehen pertsonako simulazio- eta narrazio-jokoa da, non jokalaria Maribel izeneko emakume gazte baten rolean sartzen den. Haren eguneroko bizitzan zeharkaldi bat egin behar da, eta, bide horretan, hainbat genero-bereizkeriari eta presioei aurre egin. Hasieran, oso erronka handia iruditu zitzaigun; ez genuen esperientzia handirik

jokoak sortzen eta teknologia berrieekin lan egiteak kezka ere sortzen zigun. Baina azkar konturatu ginen horrek asko erakutsiko zigula.

Jokoaren hiru maila nagusi diseinatu genituen, hiru egunetan banatuta. Lehenik eta behin, etxean gosaria prestatu behar da, baina mutil-lagunaren jarrera pasibo-oldarkorrak eta presio sozialak estresa handitzen dute. Gero, kalean eta autoan trafikoaren kaosa kudeatu, oinezkoen esanak eta biraoak jasan eta arriskuak ekidin egin behar dira. Azkenik, lanean epeak bete, lankideen jarrera matxistei aurre egin eta denbora kudeatu beharko duzu. Guretzat erronka nagusia izan zen jokalaria benetako estresa sentitzea, azken batean, Maribelek jasaten duenaren antzeko zerbait bizitzea. Horretarako, StressBot sistema sortu genuen: denborarekin funtzionatzen duen erloju bat, non jokalaria garaiz bete behar dituen zereginak, presiopean. Guretzat argi zegoen esperientziak errealista eta zama emozional handikoa izan behar zuela.

Jokoa programatzen hastean, hainbat zailtasuni egin genien aurre. Batetik, VR teknologia berria zen guretzat, eta denbora asko behar izan genuen interfaze eta kontrol-sistema egokia diseinatzeko. Bestetik, istorioa kontatzeko modua lantzea ere erronka izan zen; ez genuen joko sinple bat nahi, narrazio sendoa eta eraginkorra baizik. Horretarako ikerketa handia egin genuen; bideo-jokoetan emakumeen presentziari buruzko artikuluak irakurri genituen eta arlo hori lantzen duten hainbat bideo-jokotan

jardun genuen, adibidez, Deconstructeam-ek garatutako Behind Every Great One jokoa. Jokoen diseinuaz gain, gizartean gai hauek nola islatzen diren ulertzen ikasi genuen. Horrek guztiak gure ikuspegia aldatu zuen, eta konturatu ginen zein garrantzitsua den genero-berdintasunaren gaia modu egokian jorratzea.

Prozesuan zehar, momentu zailak izan genituen, baina horrek talde gisa sendotu gintuen. Elkarlana eta pazientzia ezinbestekoak izan ziren proiektua osatzeko. Gure esfortzuaren emaitza joko bat baino gehiago izan zen, ikusgarritasuna ematen baitzion emakume askok egunero bizi duten borrokari. Gure jokorekin ez genuen soilik lehiaketarako proiektua aurkeztu; hain zuzen ere, Oteiza ikastetxean (Zarautzen) erabiltzen ari dira gaur egun, genero-berdintasunari buruzko sentsibilizazio saioetan. Ikastetxe horretan VR betaurrekoak zituzten, baina ez zuten euskarazko edukirik aurkitzen. Gure jokoa euskaraz sortuta dagoenez, beraiei eskaini eta, haien zeharkako edukien artean genero-berdintasuna zegoenez, oso egokia iruditu zitzaion. Guretzat, hau da arrakastarik handiena, alegia, ikustea gure lana benetako aldaketa sortzen ari dela.

Googaz lehiaketara aurkeztu eta gero, proiektuak harrera oso ona izan zuen. Jokoa gustatu zitzaion epaileei, eta irabazle

izendatu gintuzten! Sari nagusia GamesConn (Alemania) bideo-joko festibalera joatea izan da, eta aukera hori aprobetxatuko dugu geure jokoa erakusteko eta sektoreko profesionalekin harremanetan jartzeko. Lehiaketako ekitaldia benetan polita eta hunkigarria izan zen. Jende askok gurekin hitz egin zuen, eta batzuek esan ziguten jokoaren ideia benetan beharrezkoa zela. Momentu berezi bat izan zen gure taldeko kide batek saria bere txakurrari dedikatu zionean, bere leialtasunagatik eta gure taldeko kidearentzat oso berezia izateagatik, nahiz eta proiektua hasi baino lehen hil zen. Pozik eta harro gaude gure lanarekin, eta, hemendik aurrera, aukera berriak aztertzen jarraituko dugu.

Bideo-joko bat egitea ez da erraza, eta are gutxiago gai sozial garrantzitsu bat modu serioan eta gamifikazioaren bidez lantzea. Bide honetan asko ikasi dugu: talde-lana, programazioa, diseinua, istorioen garrantzia... baina, batez ere, genero-berdintasunari buruz hausnartzeko beste modu bat aurkitu dugu. Borroka isila ez da joko soil bat, esperientzia bat da. Hemen ez dago garaile argirik; helburua da bizirauteko modua aurkitzea, emakume askok egunero egin behar duten bezala. Eta geuk ere ikasi dugu: emakumeen borrokak ez du zertan isila izan, denon artean entzunarazi behar dugu.



Liburuak *euskaraz* irakurtzen al dituzu?



Adelina Bernevic

Beldurrezko eleberriak gustatzen zaizkit. Euskaraz libururik gustukoena Ezekiel nora ezean izan da, Jasone Osororena. Oso errealista da; agertzen diren egoerak gaur egungo gizartean ere gertatzen direlako.



Sahar Amri

Misteriozko eta fantasiako eleberriak gustatzen zaizkit. Euskaraz gehien gustatu zaidan liburua Alberto Ladron Aranaren Arotzaren eskuak da, misteriozkoa delako, intriga handikoa. 19 kamera liburua ere gustatu zitzaidan; gainera, idazlea, Jon Arretxe, gure institutura etorri zen.



Zoe Sanchez

Nik fantasiako eta beldurrezko eleberriak gustuko ditut. Euskaraz gehien gustatu zaidan liburua Ezekiel da, nerabeen benetako egoerak adierazten dituelako eta oso interesgarriak direlako.



Peio Martinez

Misteriozko eleberriak irakurtzea gustatzen zait. Hala ere, txikitan euskaraz gehien gustatu zitzaidan liburua Roberto Santiagok idatzitako Futboleroak izan zen, izan ere, futbola gustatzen zait eta, gainera, liburu bilduma luze bat da. Hori da erakartzen nauena. Jasone Osororen Eskularru beltzak liburua ere atsegin dut, boxeoak gustatzen zaidalako.



Paule Erezkano

Maitasunezko eta misteriozko eleberriak atsegin ditut. Nire libururik gustukoena euskaraz Bi abentura eta amodio bat da, Migel Anjel Mintegi Larraza idazlearena. Oso hunkigarria da istorioa, izan ere, mutil euskaldun bat Kanadako tribu bateko neska batekin maitemintzen da eta maitasunagatik han geratzea erabakitzen du; horrek hunkitu ninduen



Gaizka Arnal

Komikiak eta mangak irakurtzea gustuko dut, mangak oso originalak direlako eta aldrebes irakurtzen direlako. Euskaraz gehien gustatu zaidan liburua Iku liburua da, Eloy Moreak idatzia eta Ipar Alkain Kazabonek euskaratua. Asko gustatu zait jazarpena jasaten duen mutil baten istorioa eta ondo kontatzen delako, hunkigarria da liburua.

Aitabitxi-amabitxi proiektua.

Gure proiektuaren helburu nagusia LH 1. mailako ikasleei irakurtzen irakastea da, baina horrez gain, gure umebitxien eta gure arteko harremanak sendotzea eta elkar ezagutzea ere bilatzen dugu. Irakurtzea funtsezko trebetasuna da haurren garapenerako eta gure ekimenaren bidez, esperientzia atsegin eta aberasgarria bihurtu nahi dugu; haurrek irakurketarekiko interesa pizteko eta konfiantza hartzeko aukera izan dezaten. Hala nola, ipuinak elkarrekin irakurtzen eta zenbaki jokoak asmatzen, haiei galderak egiten...Hona hemen, egindako jarduera batzuk

1. Eguna: Aurkezpena.

Guretzat lehen eguna oso berezia izan zen, izan ere, ezagutza eta konfiantza lantzeko une garrantzitsua da. Helburua ez da soilik irakurtzen laguntzea, baita elkar hobeto ezagutzea eta talde giro atsegina sortzea. Banan banan bakoitzari haur bat egokitu ziguten, eta behin bikoteak osatuta bakoitza bere bikotearekin txoko batera joan ginen. Haur bakoitzarekin aurrez aurre eseri ginen eta galdera sinpleen bidez, elkar ezagutzen hasi ginen. Zein zen haien izena, zer gustatzen zitzairen gehien, nola pasatzen zuten eguna, zer nahi zuten izan nagusitan... Gehienek lotsa apur bat izan zuten hasieran, baina laster konturatu ginen hitz egiteko gogo handia zutela.

2. Eguna: Hasi irakurtzen!

Gure haurrekin berriro elkartzeko irrikan geunden. Saioa hasteko, ume bakoitzak ipuin bat aurkeztu zigun, haien gustukoena. Haiek ekarritako liburua irakurtzen lagundu ostean,



guk euskarako ikasgaien asmatutako ipuin bat irakurri genien eta irakurtzen bukatu ostean jolasten aritu ginen.

Horrez gain, saio bukaeran, bakoitzak eskutitz bat atera zuen eta guri oparitu zigun. Santa Ageda ikustera gonbidatu gintuzten, eta noski, pozik onartu genuen gonbidapena.

Gure ustez, esperientzia hau oso aberasgarria izaten ari da, bai guretzat, bai haurrentzat. Ez gara soilik irakurmene lantzeko aukera izaten; baizik eta, haien ilusioak, jolasak, eta ametsak ezagutzeko tarteak ere.

Egunez egun haien konfiantza handitzen joaten ari da, eta gu ere asko ikasten ari gara haiengandik.

Hurrengo egunearen ailegatzeko irrikitan gaude!!!

Kattalin Urriz eta Níle Iñiguez de Onsoño.



Martinika

ametsetako bidaia

Atzo DBHn sartu berriak ginen, umemokoak, eta frantsesa egitera derrigortuak. Hizkuntzaberri honen aurrean zelako galbana zen esan genezakeen guztia. Gaur, Bigarren Batxilergoa amaitzeaz gaude, eta frantsesak mila hitz, esperientzia eta ikaskuntza oparitu dizkigu. Hizkuntza berri hau ikasi izanak, munduari buelta ematera bultzatu gaitu, baina ez soilik egindako elkartrukeetan, hitz berri bakoitzak leihotxo bat zabaldu digulako beste kulturengana hurbilduz.

Guztiok ezagutzen dugu frantsesen estereotipoa, ezta? Oh là là, la baguette, le croissant... baina apur bat haratago bagoaz, zehatz-mehatz, ozeano Atlantikoaren beste aldera, Martinika eta Guadalupe irlak aurkitzen ditugu, estereotipo horiekin guztiz apurtzen dutenak. Caribeko irla horiek Frantziako itsasoz haraindiko departamentuak dira, hau da, Errepublika Frantsesaren barne eskubide eta betebeharrak berdinak dituzten lurraldeak.

Lurralde ezezagunak ziren guretzat, baina behin jakinda zer diren eta non dauden, Erasmus+ programak altxor bat deskubritu zigun. Martinikara joan ginen astebete urtarrean, Mordor alde batera utzi eta hondartza paradisiakoak eta ikuspegi tropikalak besarkatu genituen. Are gehiago, harrera egin ziguten familiek eta haien kulturak gu besarkatu gintuzten. Bidaia zelakoa izan zen galdetzen digutenean mutu geratzen gara, baina gure irribarreek eta begi-disdiratsuek erantzuten dute. Dena den, bi hitzek izugarri ondo laburtzen dute esperientzia: nortasuna eta gozamina.

Martinika nortasun handiko irla da, haien kultura aberatsak bultzatua. Hizkuntza, paisaia, folklorea, gastronomia... guztiak animatzen zaitu disfrutatzeraz, haiekin gozatzeraz, eta guk, iragankorrak ziren momentuak betiereko bihurtu genituen. Adibidez bigarren egunean egin genuen bost orduko paseitoan eguzkiak eta beroak lagunduta, kolorez inguratu ginen. Baina paisaiak ez zeukan gure mendiekin eta urekin zerikusirik, irreal





zirudien kolore disdiratsuek gerizpea eta freskotasuna oparitzen ziguten landareen berde tropikalaren eta itsasoaren urdin biziaren bitartez.

Izan ere, paisaia ez zen izan irla horretan gehien harritu gintuena, jada aipatutako folkloreak eta hizkuntzak baizik. Nolabait haiekin identifikatu ginen, nahiz eta gure kulturek zerikusirik ez izan, itsasoaren beste aldean, hizkuntzak eta folkloreak bizirauteko nahia berdina da. Pena ere nabaritzen genuen kreole-az eta bélé-az hitz egiten zigutenean, haien hizkuntza eta dantzak pixkanaka galtzen ari zirela adierazterakoan. Dena dela, ulertezina zaigu zergaitik onartzen duten munduan bakarra den kultura hau txikitxea (baina bueno, besteen ipurdia garbitu nahi aurretik, gurea garbitu beharko genuke).

Denbora pasa da bidaia egin genuenetik, eta amets bat izaten jarraitzen du. Lehen ezinezkoa iruditzen zitzaigulako Erasmus+ proiektuaren bitartez horrelako esperientzia bizi ahal izatea, eta orain, bizitako guztia oroitzapen bihurtu delako. Umemokoak izaten jarraitzen dugun arren, gela batean ikasi ezin diren esperientziak bizi izan ditugu, eta ikasketa guzti hauek betirako gordeko ditugu. Messi kreol-ez, edo eskerrik asko euskeraz, hizkuntzek eta kulturek beste edozerk baino gehiago aberasten gaituela ulertarazteagatik.

Eukene Legarreta Gonzalez
2. Batxilergoa



Denbora pasak

J	E	G	I	Z	O	N	T	S	O	W	G	F	I
H	I	P	S	X	N	B	Y	T	T	A	R	H	M
K	T	S	E	N	D	A	B	E	L	A	R	L	Y
Z	S	J	Q	H	H	Z	A	S	Q	F	C	B	A
N	A	H	F	L	X	C	I	F	G	C	U	Y	K
A	S	Y	H	Y	S	L	M	U	G	A	R	R	I
E	G	B	R	W	M	J	A	I	O	L	E	K	U
C	I	T	S	A	S	E	R	T	Z	F	J	I	I
I	Z	F	N	C	B	E	G	I	L	U	Z	E	D
S	O	Z	V	O	V	Y	U	A	F	Y	E	I	Q
O	N	G	T	Q	N	A	R	M	A	R	R	I	Z
B	A	I	N	U	O	N	T	Z	I	B	B	B	W
H	W	S	Y	I	M	U	S	U	G	O	R	R	I
R	F	A	M	Z	I	W	H	B	T	R	X	O	I

Hizki zopa

Bilatu hizki-zopan jarraian agertzen diren 10 hitz-elkartuak:

armarri
bainuontzi
begiluze
gizontso

itsasertz
itsasgizon
jaioleku
mugarri

musugorri
sendabelar


Nor naiz

Esaldiekin hauen bitartez, asmatu nor naizen.


1. Euskal **ilustratzailea** naiz. Nire lanak oso ezagunak dira Euskal Herrian, batez ere haurrentzako liburuetan.
2. Estiloa **koloretsua** daukat, eta animalia eta pertsonaia **fantastikoen** irudikapenetan trebea naiz.
3. Nire lanak maiz Euskal Herriko folklorearekin lotuta egon dira, eta jendeak nire irudietan **tradizioak eta istorioak** ikusten ditu.
4. Argitalpen askotan parte hartu dut, eta nire ilustrazioek beti **edertasun eta bizitasun** handia erakusten dute.
5. Nire izena ez da soilik euskal munduan ezaguna; nire lanak nazioarteko **munduan ere famatuak dira**, eta liburu askotako portada eta irudiak egin ditut.



Enaitzak



Mezu izkuta: Txipa aldatu eta euskaraz mintzatu!
Nor naiz?: Dom Campistron



Gizarte zikloko ikasle esperientzia

Proiektu dibertigarri eta zirraragarria.

Txurdinagako Lanbide Heziketako Gizarteratze zikloko ikasleak gara eta ikasturte honetan kolektibo ezberdinekin landu ditugun esku-hartzeak azalduko dizkizuegu. Gure zentroan ETHAZI metodologiak lantzen dira ahalik eta errealitate profesionalenak bizitzeko helburuarekin.

Ikasturte hasieran eta lehen sarrera moduan erronka bat egin genuen eta hainbat elkarte aztertu genituen San Frantzisko auzoan. Haien artean aniztasun handia nabaritu genuen. Alde batetik, munduko leku ezberdineko elkarteak ikusgai daude kaletik; CEAR, Alforkan, África Vive, Asociación de Chinos...Hau kontuan hartuta, konturatu ginen auzo honek multikulturala dela. Horretaz gain, talde bakoitzak elkarte bat aukeratu genuen azterketa sakonago bat egiteko eta ondoren, haiekin elkarriketa bat lortu genuen, haien artean: “Médicos del Mundo”, ADSIS,...etab.

Azaroa eta Abendu tartean, bigarren erronka batekin hasi ginen. Kasu honetan lan zehatzago bat egin genuen eta kolektibo zehatz batera



eratz asleen ziak.



zuzenduta, ASPACE zentruarekin hain zuzen. ASPACEn garun paralisia duten pertsonekin aritzen dira. Guk eguneko egoitza batekin elkarlandu genuen gure esku-hartzea egiteko. Egoitzara joan orduko garun paralisia daukaten pertsonen kolektiboaren ezaugarriak aztertu genituen eta zer nolako premiak dituzten ikasi genituen. Badakigu orain hainbat errealitate ezberdin daudela kasu bakoitzetan, eta teorian ikasi bagenuen ere, praktikan begi bistakoa izan zen. Garun paralisiaren gain erabiltzaile batzuek beste desgaitasun batzuk zituzten haien egoera zailduz.

Haientzat prestatu genituen ariketak aisialdian jorratzekoak ziren, adibidez, psikomotrizitatea lantzekoak, punteria lantzekoak hain zuzen. Ariketa honetan pilotak eman genien erabiltzaile bakoitzari eta guk marraztutako eta landutako

kartoizko saskietara sartu behar zituzten. Emaitzak arritu ginduen, espero genuen baino ahalmen handiagoa zutela behatu genuen.

Taldean bazegoen komunikatzeko laguntza behar zuena, bai pertsona batena bai teknologiarena, hala ere parte hartzeko ahaleginak egiten zuen.

Urtarrilean landu dugun azken erronka hirugarren adineko pertsonen ingurukoa izan da. Beste lanetan bezala, lehenik eta behin zati teorikoarekin hasi ginen, talde honetako informazioa pilotzen eta haiei eragiten dien gaixotasunak edo egoerak ere aztertu genituen, adibidez dementzia, alzheimer edo funtzio kognitiboen narriadura. Klaseko talde bakoitzak jardura ezberdinak egin zituen eta bakoitzak helburu ezberdin bat zuen; batzuk psikomotrizitate fina landu gendun, eta beste batzuk orientazioa, memoria eta mintzaera.

Memoriaren kasuan epe luzeko memoria landu genuen, non “Pasapalabrako roska” estiloko gailu batekin letra bakoitzeko galdera bat plantetauko genien eta bakoitzeko hiru erantzun posible zituzten aukeratzeko baina bakarrik bat egokia izanez.

Ikasturtean zehar ikasi dugun gauzarik garrantzitsuena komunikazio giro bikaina sortzea eta generazio ezberdinen arteko harremana lortzea da, eta ez landutako teknikak.



La sallekoak Gasteiztik.

Gasteizera joatea ez zen guk espero genuen txangoa, baina eskolatik ateratze hut-sarekin konforme ginen. Azkenean, laburra egin zitzaigun igarotako eguna, eta ber-ritz egingo genuke, duda barik.

Irteerabat izango genuela esan zigutenean, pozez gainezka jarri ginen. Oraindik azterketa guztiak aurretik geneuzkan, baina hauen ostean errutinatik irteteko eta estresa askatzeko aukera izango genuela jakindakoa animoz bete ginen. Gainera, horrela lagunekin denbora beste modu baten igarotzeko aukera aparta izango genuen. Halere, aitortu beharrekoa da Gasteizera joango ginela esan zigutenean ez zela guk espero genuen tokia, baina eskolatik ateratzearekin nahikoa zen.



Goizeko zortzietan autobusa hartu genuen eta Gasteizerantz abiatu ginen. Bidaia nahiko entretenigarria izan zen, hizketan txor-txor adiskideekin autobus erosoan. Pixka bat atzeratu ginen, bidetik istripu batekin topo egin baikenuen, baina gutxienez guztiok sano heldu ginen. Katedralaren ondoan utzi gintuzten, handik Andre Maria Zuriaren plazara joan gintezen. Paseo laburtxoa baina atsegina izan zen.

Bertan lau gida zeuden gure zain, bakoitza ikasle talde bati Gasteiz erakusteko prest. Beraz, taldetan banatu ginen eta Alde Zaharretik ibiltzen eman genuen goiz erdia. Handik izugarrizko eliza, eskultura eta jauregitxoak ikusi genituen, benetan ederrak. Hauei buruzko informazioa eman zigun gidak. Hala ere, gai batzuei buruzko ezezaguntasuna dela eta, atal batzuk pixka bat aspergarriak izan ziren.


Horrez gain, harresiari buruz ere hitz egin zuen. Tamalez, ezin izan genuen ondo ikusi eta ezin izan ginen eraikinetan sartu. Gutxienez, hogeit minutuko tartetxo librean izan genuen hamaiketakoa hartzeko eta Gasteiz geure kabuz pixka bat esploratzeko.

Bukatutakoan, autobusera bueltatu ginen eta Nova Jump-era eraman gintuzten bertako jarduerak egin genitzan. Lehen begi-kolpean ez zitzaigun handiegia iruditu, baina behin barruan, harritu egin gintuen. Espero genuena baino askoz hobeia izan zen, ohe elastikoez gain tirolinak eta zirkuitoak ere bazeudelako. Bertan eman zizkiguten galtzerdi irristagaitzak, eta denbora galdu barik salto egitera sartu ginen. Itzela izan zen, eta gainera, momentu zehatz batean argi ultramorea ipini zuten. Primerakoa izan zen.



Esperientzia hura oso baliagarria izan zen beldurra galtzeko eta normalean egingo ez genituzkeen gauzak frogatzeko, hala nola jauziak, txilinbuelak... Bestalde, azpimarratzekoa da inor ez zegoela behartuta egin nahi ez zuen ezer egitera, eta hori guztiontzat garrantzi handikoa izan zen denok gustura senti gintezan. Orduan, dudarik gabe esan dezakegu denok biziki disfrutatu genuela.

Baina gauza guztiak bezala, amaitu egin zen. Arropa aldatu genuen eta jatera joan ginen. Bazkaria jateko eta lagunekin esperientzia komentatzeko astia izan genuen. Azkenik, autobusera bueltatu behar izan genuen. Berez laburra egin zitzaigun Gasteizen igarotako eguna, eta berriz egingo genuke, duda barik.



AGATE



bezperan Deustuko Ikastolarekin.

LH

Aurten ere, urtero ohitura den bezala, Deustuko Ikastolako 1. eta 2. mailako ikasleak, Deustutik (gure auzotik) oles egitera atera gara.

Lehenengo eta behin, elkarrekin Ikastolako patioan abestu dugu eta jarraian, maila bakoitza auzoko leku ezberdinetatik abestera joan gara.

Primeran aritu gara eta arratsaldean azkaria egiteko adina diru lortu dugu.

Mila esker guri laguntzen etorri zareten guztioi!!

DBH

Urtarrilaren 22an, heziketa fisikoko irakasle batek, Javik, Agate Deunaren bezperan dantzatzera eta abestera irtetea proposatu zigun DBH 4ko ikasleoi, ikas-bidaiaaren diru bilketan laguntzeko.

Ostiral horretan, dantza eta abestia prestatzen hasi ginen guztiok batera. Txapeloaz, esku-dantza eta zazpi-jauzi izan ziren gure hiru koreografia protagonistak. Hasiera batean, nahiko zaila egin zitzaigun arren, azkenean, Itxasori esker, profesionalak genirudien. Dantzarekin batera, abestia praktikatu genuen ere, betiko garaia oroitzen. Ez gara koro bat, ezta dantza talde profesional bat ere ez; argi dago, baina hainbeste praktikatu ostean, aurrera eramatea lortu genuen.





Azkenean, heldu zen Agate Deuna bezpera, otsailaren 4a. Lehen hiru orduetan klase normala izan arren, atsedenaldia heldutakoan, prestatzen hasi ginen guztiok. Alde batetik, neskak baserritarrez jantzi ginen: gona luzea, amantala, zapia... Beste aldetik, mutilek alkandora zuria, txapela eta gerrikoa eraman zuten. Denok prest geundenean, azken entsegu bat egin genuen dantza menperatzen genuela baieztatzeko.

Bilbora joateko momentua heldu zitzaigun, eta horrantz metroz abiatu ginen. Gure lehenengo geldialdiaren aurretik, pausa txiki bat egin genuen Unamuno plazan. Jarraian, Plaza Barrira heldu ginenean, arin batean kokatu ginen Txapeloaz dantzatzeko. Dena espero bezala aterazen, jendearen animoek lagundu gintuzten, eta animaturik gure hurrengo geltokira abiatu ginen. Azken honetan, bizitasun osoz, gure pausuak jokora atera genituen, abestu ere egin genuen, eta gure ibilbidea amaitzear zegoenean, kalejira eginez egunari "ginda" jarri genion. Abesten genuen bitartean, oinezkoen irriek lagundu ziguten metro geltokira arte.

Egun hau ezin hobea izan zen, noizbait errepikatzea espero dugu, eta hurrengo kurtsoei egun hau bizitzea asko gomendatuko genieke, bizitzan behin bakarrik gertatzen delako, eta euskal kulturak denok batzen gaituelako.





*Elkar mugituz
egingo dugu*

Maiatzaren 15etik 25era